

## LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

### 1.- Egitasmoaren izenburua:

II. ALDIA: ERAIKINA EGOKITZEA ETA BAINUETXE ZAHARRAREN ESTALKIAK BIRGAITZEA

### 2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

### 3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzaitzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

### 4. - Proiektuaren helburua:

Kuartangoko Udalak interesa du Zuhatzu Kuartangoko bainuetxe eta ikastetxe zaharreko eraikinak erabat egokitzeko. Eraikin horien katastroko erreferentzia hauxe da: 20-4-327 – E1, E2 eta E3 eraikinak-. Lehenengo aldian, erabilera anitzeko aretoaren barrualdea egokitu da, bai eta E1 eraikinarena ere. Eraikin horren estalkia ere birgaitu da. II. aldian, eraikinaren gainerako estalkiak birgaituko dira.

Sustatzaileen asmoa da erabilera berriak ezartzea eraikinetan eta, hartara, eraikin horiek jarduera ekonomikoak, gizarte-arlokoak eta kulturakoak garatzeko gune bihurtzea, bailararentzat ez ezik, eskualde osoarentzat ere bai. Erabilera berri horiek zuzenean edo zeharka eragin behar diete Kuartangoko biztanleei, enplegarritasuna suspertu eta enpresa-proiektu berriak garatzeko aukerak sortuta, zerbitzu jakin batzuk erraztu eta, hainbat jardueraren bidez, udalerriko balio sozioekonomikoen aprobetxamendua dinamizatuta. Era berean, proiektuaren garrantzia dela eta, xede-taldea Añanako Kuadrillari dagokion eskualdera ez ezik, Arabako lehen eta hirugarren sektoreetako eremu osora ere hedatzen da.

Lanen helburua da eraikinak osorik egokitzea bertan aurreikusten diren erabilerak ahalbidetzeko; hala, inguratzaile termikoa hobetuko da eta, horrela, energia aurreztu eta irisgarritasuna sustatuko da.

### 5.- Inbertsio totala: 482.014,48 euro

### 6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 265.107,96 euro  
Finantzatzeko beste iturri batzuk: 101.000,00 euro

### 7.- Onuraduna:

## KUARTANGOKO UDALA

- Publikoa  
 Pribatua

### **8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:**

Bai proiektuaren esparrutik hurbilen dagoen eremuak, hau da, Kuartangoko udalerriak, bai eta udalerria barruratzen duen eskualdeak ere, hau da, Añanako Kuadrillak, onura garbia eta zuzena hartuko dute proiektu honi esker; izan ere, bi kasuetan, irtenbidea guztiz egokia da aipatutako eremuetako mehatxu erkideei aurre egiteko, hala nola biztanleria galtzeko arriskuari, gazteentzako erakargarritasunik ezaren ondorioz eta bizitza-proiektua bertan garatzea ahalbidetzen dizkieten aukerei erantzuteko beharrek eraginda; edo garaturik ez dagoen nekazaritza eta elikagaigintzari lotutako sektore eraldatzaile eskasa eta hautabiderik gabekoari, lehen sektorearentzako prestakuntza berariazkoa antolatzeke modurik ere ematen ez duela. Zehazki, enplegua sortu nahi da, zuzenekoa zein zeharkakoa, epe ertain eta luzera enpresa-proiektu berriak ezartzeko aukera eman nahi da, eta sektore mehatxatua sendotu nahi da.

### **9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:**

Kuartango, Araba

### **10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):**

Kuartangoko Udalak, Zuhatzu Kuartangoko bainuetxearen eraikin zaharra osoki berreskuratzeko asmoz, 2015ean hasi zuen eraikina hainbat alditan birgaitzeko prozesua, eta hasiera batean, eraikinaren ingurua berreskuratu zen, fatxadak eta itxitura zaharberritu ziren, eta, LEADER laguntzei esker, estalkiaren zati bat ordeztu zen, baita eraikinaren barruko espazioak egokitu ere. Espazio horiek enpresak ezartzeko eta erabilera publikoetarako erabili dira udalarentzat eta eraikinaren gainerako erabiltzaileentzat.

Lehen aldia amaituta, estalkia osorik presaz birgaitzeko premia antzeman zen, eraikinaren egituraren eta estalkiaren beraren egoera mehatxu nabarmena baita etorkizunean eraikinaren barruan egiten diren jarduerak garatzeko.

### **11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):**

Gaur egun, lehen aldian egindako birgaitze-lanei esker, honako hauek ditu eraikinak: sagardotegia, kontserba-enpresa, erabilera anitzeko areto bat, 300 parte-hartzailerentzat, erakusketa-gune bat, Kuartangoko bainuetxeko Interpretazio Zentro gisa erabilia, eta enpresak ezartzeko 8 espazio erabilgarri (bertan hasteko interes handia duten enpresak zain daude, laster egingo diren irisgarritasun-egitekoak noiz amaituko).

Estalkia eraberritzeari ekin ahal izanez gero, hainbat aukera izango lituzke eraikinak, eta aukera horiek erantzuna emango liekete proposatutako eskari gero eta handiagoi, hala nola aterpetxea eta prestakuntza emateko guneak egokitzeari.